Sin./Fdo.: CRISTINA SARDUY GAINZA 2024-10-23
GENERO POLITIKETARAKO ETA DIBERTSITATERAKO IDAZKARI TEKNIKOA
SECRETARIO/A TÉCNICO/A DE POLÍTICAS DE GÉNERO Y DIVERSIDAD

Sin./Fdo.: TRINIDAD LOURDES VICENTE TORRADO 2024-10-24
BERDINTASUNA SUSTATZEKO ZUZENDARITZA NAGUSIA-REN ZUZENDARI NAGUSIA
DIRECTOR/A GENERAL DE DIRECCIÓN GENERAL DE IGUALDAD

Sin./Fdo.: MARÍA TERESA LAESPADA MARTINEZ - 2024-10-24
ENPLEGUA, GIZARTE KOHESIOA ETA BERDINTASUNA SUSTATZEKO SAILA-REN FORU DIPUTATUA
DIPUTADO/A FORAL DE DEPARTAMENTO DE EMPLEO, COHESIÓN SOCIAL E IGUALDAD

BIZKAIKO FORU ALDUNDIA-DIPUTACION FORAL DE BIZKAIA - 2024-10-31
GZko 18.gaia onartuta - Aprobado, asunto 18) de OD

Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

ERABAKI; erabaki honen bidez dirulaguntza izendatua ematen da eta baimena ematen da Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearekin hitzarmen bat sinatzeko; hitzarmenaren helburua, berriz, hauxe da: "Beldur Barik" emakumeen aurkako indarkeria prebenitzeko programa garatu eta elkarrekin finantzatzeko.

ACUERDO por el que se concede una subvención nominativa y se autoriza la suscripción de un convenio con Emakunde-Instituto Vasco de la Mujer para el desarrollo y cofinanciación del programa interinstitucional “Beldur Barik” de prevención de la violencia contra las mujeres.

«Instituto Vasco de la Mujer / Emakumearen Euskal Erakundea» sorrarazteari buruzko otsailaren 5eko 2/1988 Legearen 2. artikuluaren arabera, Emakunderen funtsezko xedea da Euskal Herriko politika, ekonomia, kultura eta gizarte-bizitzako alor guztietan gizonezkoen eta emakumezkoen arteko benetako eta egiazko berdintasuna lortzea.

Beste alde batetik, EMAKUNDE-Emakumearen Euskal Erakundearen helburuetako bat hau da: administrazioen esku-sartzea indartu eta areagotzea emakumezkoen eta gizonezkoen berdintasuna sustatzen, batez ere sexuen arteko desberdintasunaren agerkaririk larrienean: emakumezkoen aurkako indarkerian.

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistarik gabeko Bizitzetarako Legearen testu bateginaren, martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren bidez onartuta (aurrerantzean, berdintasunerako Legearen testu bategina), eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa eta Emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabeko bizitzena ekainaren 20ko eta 4/2018 Foru Arauaren arabera, Bizkaiko Foru Aldundiari dagokio bere lurralde-eremuan, emakumeen eta gizonen ezberdintasun-egoerari buruz eta berdintasuna sustatzeko abiarazi behar diren neurriei buruz sentsibilizazio-jarduerak burutzea.

De acuerdo con el artículo 2 de la Ley 2/1988, de 5 de febrero, sobre creación del «Instituto Vasco de la Mujer / Emakumearen Euskal Erakundea», el fin esencial del Instituto es la consecución de la igualdad real y efectiva de mujeres y hombres en todos los ámbitos de la vida política, económica, cultural y social del País Vasco.

Por otra parte, uno de los objetivos de EMAKUNDE-Instituto Vasco de la Mujer es reforzar y potenciar la intervención de las administraciones en la promoción de la igualdad de mujeres y hombres y en la que es la manifestación más grave de la desigualdad de los sexos: la violencia contra las mujeres.

De acuerdo con el texto refundido de la Ley para la Igualdad de Mujeres y Hombres y Vidas Libres de Violencia Machista contra las Mujeres, aprobado por el Decreto Legislativo 1/2023, de 16 de marzo (en adelante, texto refundido de la Ley para la Igualdad), y de acuerdo con la Norma Foral 4/2018 de 20 de junio para la Igualdad de Mujeres y Hombres, corresponde a la Diputación Foral de Bizkaia realizar, en su ámbito territorial, actividades de sensibilización sobre la situación de desigualdad entre mujeres y hombres y sobre las medidas necesarias para promover la igualdad.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 08NX-EL4V-1VLR-K967
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

Berdintasunerako Legearen testu bategina berak, 6-k) artikuluan eta 4/2018 Foru Arauak 5-k) artikuluan foru administrazioen eginkizunen artean hauxe ezartzen dute: "Erakunde publiko zein pribatuekin harremanak finkatzea eta partaidetza eta lankidetzarako bideak ezartzea, baldin eta erakundeon xedeek edo eginkizunek lurralde-eremuan emakumeen eta gizonen berdintasuna erdiesten laguntzen badute".

Emakunde–Emakumearen Euskal Erakundeak, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako foru aldundiek eta Eudel-Euskadiko Udalen Elkarteak elkarrekin dihardute lanean 2009. urteaz geroztik genero indarkeriaren prebentziorako erakundearteko programa bat garatzen "Beldur Barik" izenarekin eta gazteentzat zuzendua; bada, 2014. urteko ediziotik hona, EMAKUNDE-Emakumearen Euskal Erakundeak, Eudel eskatuta, erantzukizuna hartu du programa hori kudeatzeko.

Estrategia honen helburua hauxe da: administrazio publikoek bultzatzen dituzten berdintasun-programek koherenteak izan behar dute euren estrategia eta helburuetan, eta horrek beharrezko egiten du erakundeen arteko koordinazioa, betiere politika horiek gizarte-eredu berri baten eraikuntza ukitzen duten neurrian eta, beraz, hiritar guztiak ukitzen dituzten neurrian.

Eremu honetan, Emakunde–Emakumearen Euskal Erakundea eta Bizkaiko Foru Aldundia ados daude, zertarako eta Beldur Barik erakundearteko arteko programa 2023. urtean zehar garatzen elkarrekin jarduteko.

Hitzarmen honetan ezarritako jarduerak burutzeko, beharrezkoa da hogeita hamabost mila euroko ekarpena egitea (35.000,00 €) BEZa barne, 232114 aurrekontu-aplikazioaren pentzudan: organikoa 0905, programa 232114, ekonomikoa 423.00, proiektua 2019/0015.

Dirulaguntza honi dagozkion arauak Aldundiaren erabaki-proposamen honi erantsi zaion hitzarmenean jaso dira.

Bere aldetik, Bizkaiko Lurralde Historikoaren 2024rako Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 29ko 10/2023 Foru Arauak, izendun zainpeketen eranskinean, Emakunde Instituto Vasco

El mismo texto refundido de la Ley para la Igualdad en su artículo 6-k) y la Norma Foral 4/2018 en su artículo 5k) señalan también como una de las funciones de las administraciones forales la del "establecimiento de relaciones y cauces de participación y colaboración con entidades públicas y privadas que en razón de sus fines o funciones contribuyan en su ámbito territorial a la consecución de la igualdad de mujeres y hombres".

Emakunde-Instituto Vasco de la Mujer, las Diputaciones Forales de Álava, Bizkaia y Gipuzkoa y Eudel-Asociación de Municipios Vascos vienen colaborando desde el año 2009 en el desarrollo de un Programa Interinstitucional de Prevención de la violencia de género dirigida a la juventud, bajo el lema "Beldur Barik" y a partir de la edición correspondiente al año 2014 EMAKUNDE-Instituto Vasco de la Mujer, a solicitud de Eudel, asume la responsabilidad de gestionar dicho programa.

Esta estrategia responde a que los programas de igualdad impulsados desde las administraciones públicas deben ser coherentes en sus estrategias y objetivos, lo cual exige una coordinación institucional, en la medida en que son políticas que buscan incidir en la construcción de un nuevo modelo de sociedad y afectan por tanto al conjunto de la ciudadanía.

En este marco Emakunde-Instituto Vasco de la Mujer y la Diputación Foral de Bizkaia se muestran de acuerdo en contribuir al desarrollo del Programa Interinstitucional Beldur Barik durante el año 2024.

Para la ejecución de las actividades previstas en este convenio se hace necesaria una aportación de treinta y cinco mil euros (35.000,00 €) con cargo a la aplicación presupuestaria: orgánico 0905, programa 232114, económico 423.00, Proyecto 2019/0015.

La regulación de la subvención se recoge en el convenio que figura como anexo de la presente propuesta de acuerdo foral.

Por su parte, la Norma Foral 10/2023 de 29 de diciembre, de Presupuestos Generales del Territorio Histórico de Bizkaia para el año 2024, señala en el anexo de consignaciones nominativas la

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 08NX-EL4V-1VLR-K967
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

de La Mujer erakundeari dagokiona ezarri du: organikoa 0905, programa 232114, ekonomikoa 423.00, proiektua 2019/0015; 35.000 euroko zenbatekoa.

Bestalde, datu pertsonalen babesaren arloan aplikatu behar den araubidea manu hauetan ezartzen da: Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamendua, Datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzkoa eta 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu pertsonalak babestu eta eskubide digitalak bermatzeko dena.

Azaldutakoa dela bide, eta Dirulaguntzei buruzko Foru Arauaren Erregelamenduko 12.3 artikuluan ezarritakoa kontuan hartuta (martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuak onartu zuen erregelamendu hori), eta Bizkaiko Kondaira Lurraldeko Foru Erakundeen Hautapen, Antolaketa, Erregimen eta Funtzionamenduari buruzko otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauko 17., 28., 39. eta 66. artikuluak ikusita, honako proposamen hau aurkezten zaio Enplegua, Gizarte Kohesioa eta Berdintasuna Sustatzeko foru diputatu andre txit argiari, egokitzat jotzen baldin badu, Bizkaiko Foru Aldundiari aurkez diezaion, beronek azter eta onar dezan

ERABAKI

Lehenengoa.- Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeari (IFZ: Q 5150004I), Eusko Jaurlaritzaren (IFK: S 4833001C) mendeko erakunde autonomiadunari, dirulaguntza izendatu bat ematea 2023. urterako; haren gehieneko kopuru osoa HOGEITA HAMABOST MILA eurokoa da (35.000,00 €) aurrekontu-partida honen pentzudan: organikoa 0905, programa 232114, ekonomikoa 423.00, proiektua 2019/0015; ekitaldia, 2024 (Enplegua, Gizarte Kohesioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailarena); kontzeptua, berriz, hauxe da: esleipena egitea gazteei begirako Emakumeen Aurkako Indarkeria prebenitzeko Beldur Barik erakundearteko programan parte hartzeagatik.

Bigarrena.- Emakunde–Emakumearen Euskal Erakundearen (Eusko Jaurlaritzaren mendeko erakunde autonomiadunaren) eta Bizkaiko Foru

correspondiente a Emakunde Instituto Vasco de la Mujer: orgánico 0905, programa 232114, económico 423.00, Proyecto 2019/0015, importe de 35.000 euros.

Por otra parte, el régimen de protección de datos personales aplicable es el Reglamento (UE) 2016/679 del Parlamento Europeo y del Consejo, de 27 de abril de 2016, relativo a la protección de las personas físicas en lo que respecta al tratamiento de datos personales y a la libre circulación de estos y la Ley Orgánica 3/2018, de 5 de diciembre, de Protección de datos personales y garantía de los derechos digitales

En virtud de lo expuesto y en atención a lo establecido en el artículo 12.3 del Reglamento de la Norma Foral de Subvenciones, aprobado mediante Decreto Foral 34/2010, de 23 de marzo, y vistos los artículos 17, 28, 39 y 66 de la Norma Foral 3/1987, de 13 de febrero, sobre Elección, Organización, Régimen y Funcionamiento de las Instituciones Forales del Territorio Histórico de Bizkaia, se eleva propuesta a la Ilma. Sra. Diputada Foral, Titular del Departamento de Empleo, Cohesión Social e Igualdad, para que, someta a la consideración de la Diputación Foral de Bizkaia, para su estudio y aprobación, el siguiente

ACUERDO

Primero.- Conceder a Emakunde – Instituto Vasco de la Mujer con CIF Q 5150004I, organismo autónomo dependiente del Gobierno Vasco (con CIF S 4833001C), una subvención nominativa por la cantidad total máxima de TREINTA Y CINCO MIL euros (35.000,00€) para el año 2023 con cargo a la partida presupuestaria: orgánico 0905, programa 232114, económico 423.00, Proyecto 2019/0015 del ejercicio 2024 del Departamento de Empleo, Cohesión Social e Igualdad, en concepto de asignación por su contribución en el Programa Interinstitucional Beldur Barik de Prevención de la Violencia contra las Mujeres dirigida a la juventud.

Segundo.- Aprobar el Convenio entre Emakunde – Instituto Vasco de la Mujer, organismo autónomo dependiente del Gobierno Vasco, y la Diputación

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 08NX-EL4V-1VLR-K967
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

Aldundiaren arteko hitzarmena onestea; hitzarmenaren helburua, berriz, hauxe da: "Beldur Barik" emakumeen aurkako indarkeria prebenitzeko programa garatu eta elkarrekin finantzatzea.

Foral de Bizkaia para el desarrollo y cofinanciación del programa interinstitucional “Beldur Barik” de prevención de la violencia contra las mujeres.

Hirugarrena.- Enplegua, Gizarte Kohesioa eta Berdintasuna Sustatzeko Saileko foru diputatu andre txit argia ahalduntzea, hitzarmen hori sina dezan.

Tercero.- Facultar a la Ilma. Sra. Diputada Foral del Departamento de Empleo, Cohesión Social e Igualdad para que proceda a la firma del mencionado Convenio.

Laugarrena.- Erabaki hau alderdi interesdunei jakinaraztea legez ezarrita dagoen bezala.

Cuarto.- Notificar el presente Acuerdo, en legal forma, a las partes interesadas.

Bosgarrena.- Berau Bizkaiko Batzar Nagusiei bidaltzea, berauek berrets dezaten.

Quinto.- Dar traslado a las Juntas Generales de Bizkaia para su ratificación.

Genero Politiketarako eta Dibertsitaterako Idazkari Teknikoa/Secretaria Técnica de Políticas de Género y Diversidad/ CRISTINA SARDUY GAINZA.

O.E/VºBº

Berditasuna Sustatzeko Zuzendaritza Nagusia/Directora General de Igualdad/ TRINIDAD LOURDES VICENTE TORRADO

AURREKO TRAMITEAN EZARRI DENAREKIN BAT, GOBERNU KONTSEILUARI AURKEZTU BEHAR ZAIO./DE CONFORMIDAD CON EL TRÁMITE PRECEDENTE, ELEVESE AL CONSEJO DE GOBIERNO

Enplegua, gizarte kohesioa eta berdintasuna sustatzeko Saileko foru diputatua/ La diputada foral del Departamento de empleo, cohesión social e igualdad/Mª TERESA LAESPADA MARTÍNEZ.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 08NX-EL4V-1VLR-K967
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

HITZARMENA, EMAKUNDE-EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEREN ETA BIZKAIKO FORU ALDUNDIAREN ARTEKOA, "BELDUR BARIK" EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA PREBEN-ITZEKO ERAKUNDE KANPAINA GARATU ETA BATERA FINAN-TZATZEKOA, 2024. URTERAKO.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko xxx xxa.

BILDU DIRA:

**Miren Elgarresta Larrabide andrea**, EMAKUNDE, Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendaria, erakunde horren izen eta eskuordetzan jarduten duena (IFK: Q5150004I), EMAKUNDE-Emakumearen Euskal Erakundeko egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen (urriaren 31ko 214/2006) Dekretuaren 17.2 f) artikuluari jarraikiz. Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundea Eusko Jaurlaritzaren erakunde autonomoa da (IFK: S4833001C).

**Teresa Laespada Martínez andrea.**, Enplegua, Gizarte Kohesioa eta Berdintasuna Sustatzeko foru diputatua dena eta Bizkaiko Foru Aldundiaren (IFK: P4800000D) izen eta eskuordetzan jarduten duena.

HONAKO HAU AZALDU DUTE

*Lehenengoa.-* EMAKUNDE-Emakumearen Euskal Erakundea sortzeari buruzko otsailaren 5eko 2/1988 Legearen 2. artikuluarekin bat etorriz, Erakundearen helburu nagusia da emakumeen eta gizonen artean berdintasuna lortzea –benetakoa eta eraginkorra–, Euskal Autonomia Erkidegoko politikagintza, ekonomia, kulturgintza eta gizartearen alor guztietan.

Aipatu Legeko 3. artikuluko a), h) eta n) idatz-zatietan ezartzen denez, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen funtzioak izango dira aipatu xedeak lortzeko jarraibideak egitea eta horiek euskal botere publikoek aplikatu ditzaten bultzatzea; eta emakumeen eta gizonen berdintasunean, barne harturik emakumeen aurkako indarkeria matxista ere, eta emakumeen egoeran eragina duten programei dagokienez, Autonomia Erkidegoko botere publikoen artean izan beharreko koordinazio-neurriak bultzatzea. Halaber, hari dagokio herritarrak sentsibilizatzea, kasuan kasu egokitzat jotzen diren sentsibilizazio-, sustapen- eta zabalkunde-jarduerak eta -kanpainak eginez, herritarrak emakumeen eta gizonen berdintasunaren esanahiaz eta garrantziaz jabetu daitezen, bai eta hori lortzeko eta emakumeak ahalduntzeko lan egiteko premiaz ere.

CONVENIO ENTRE EMAKUNDE-INSTITUTO VASCO DE LA MUJER Y LA DIPUTACIÓN FORAL DE BIZKAIA PARA EL DESARROLLO Y COFINANCIACIÓN DE LA CAMPAÑA INTERINSTITUCIONAL "BELDUR BARIK" DE PREVENCIÓN DE LA VIOLENCIA CONTRA LAS MUJERES, PARA EL AÑO 2024.

En Vitoria-Gasteiz, a xx de xxx de 2024.

SE REÚNEN

**Dña. Miren Elgarresta Larrabide**, Directora de EMAKUNDE-Instituto Vasco de la Mujer actuando en nombre y representación de dicho ente (con CIF Q5150004I), en virtud del artículo 17.2 f) del Decreto 214/2006, de 31 de octubre, por el que se establece la estructura orgánica y funcional de EMAKUNDE-Instituto Vasco de la Mujer. EMAKUNDE-Instituto Vasco de la Mujer es un organismo autónomo del Gobierno Vasco (con CIF S4833001C).

**Dña Teresa Laespada Martínez,** Diputada foral de Empleo, Cohesión Social e Igualdad, actuando en nombre y representación de la Diputación Foral de Bizkaia (con CIF P4800000D).

EXPONEN

*Primero.-* De acuerdo con el artículo 2 de la Ley 2/1988, de 5 de febrero, sobre creación de EMAKUNDE-Instituto Vasco de la Mujer, el fin esencial del Instituto es la consecución de la igualdad real y efectiva de mujeres y hombres en todos los ámbitos de la vida política, económica, cultural y social del País Vasco.

La mencionada Ley establece, en los apartados a), h) y n) de su artículo 3, que serán funciones de EMAKUNDE-Instituto Vasco de la Mujer elaborar directrices destinadas a la consecución de los fines anteriormente referidos e impulsar su aplicación por los distintos poderes públicos vascos, así como impulsar medidas de coordinación necesarias entre los diversos poderes públicos de la Comunidad Autónoma con relación a los programas que tengan incidencia en la situación de las mujeres y en la igualdad de mujeres y hombres, incluida la violencia machista contra las mujeres. Asimismo, le corresponde la sensibilización a la ciudadanía, realizando las actividades y campañas de sensibilización, promoción y difusión que se consideren oportunas, sobre el significado e importancia de la igualdad de mujeres y hombres y sobre la necesidad de trabajar en su consecución y en el empoderamiento de las mujeres.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 08NX-EL4V-1VLR-K967
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

Antzera arautu da gaia Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bateginean, martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren bitartez onartutakoan. Hala, bertako 5 e) artikuluari jarraikiz, hari dagokio euskal administrazioek emakumeen eta gizonen berdintasunari buruz egiten dituzten jarduketen arteko lankidetza bultzatzea, eta, artikulu bereko i) idatz-zatiaren arabera, baita emakumeen eta gizonen arteko desberdintasuneko egoerei buruz sentsibilizatzeko eta berdintasuna sustatzeko behar diren neurriei buruzko jarduerak ere, Euskal Autonomia Erkidego osorako eta Euskal Herria osorako era bateratuan egin behar direnean.

Horren haritik, Erakundearen helburuetako bat da administrazioen esku-hartzea indartzea eta bultzatzea alor hauetan: emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko esku hartzea eta sexuen arteko desberdintasunaren erakusgarririk larrienetakoan, esan nahi baita emakumeen aurkako indarkerian esku hartzea, hain zuzen ere.

**Bigarrena.-** Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen arabera eta Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako ekainaren 20ko 4/2005 Foru Arauaren arabera Bizkaiko Foru Aldundiari dagokio *"sustapen neurriak ezartzea udalei eta gainerako toki erakundeei emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna lortzera bideratutako programak eta jarduerak garatzeko baliabide materialak, ekonomikoak eta giza baliabideak hornitzeko". (Legearen 6 h) artikulua eta Foru Arauaren 5.h artikulua).*

Halaber, aipatu Legeko 6 f) artikuluaren arabera eta aipatu Foru Arauko 5.f artikuluaren arabera, bere lurralde esparruan, emakumeen eta gizonen arteko desberdintasuneko egoerei eta berdintasuna sustatzeko behar diren neurriei buruzko sentsibilizazio jarduerak egitea dagokio.

**Hirugarrena.-** Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeak, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako foru aldundiek eta Eudel-Euskal Udalerrien Elkarteak 2009az dihardute gazteei zuzendutako genero-indarkeria prebenitzeko erakundeen arteko kanpaina bat garatzen, Beldur Barik leloaren pean.

**Laugarrena.-** 2014. urteko ekitaldiaz geroztik, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeak, Eudelek eskatuta, bere gain hartzen du Beldur Barik erakundeen arteko kanpaina kudeatzeko ardura. Kanpainan parte

En similares términos se regula la materia en el texto refundido de la Ley para la Igualdad de Mujeres y Hombres y Vidas Libres de Violencia Machista contra las Mujeres, aprobado mediante Decreto Legislativo 1/2023, de 16 de marzo. Así, le corresponde realizar, de conformidad con su artículo 5 e), el impulso de la colaboración entre las actuaciones de las diferentes administraciones vascas en materia de igualdad de mujeres y hombres, y, según el apartado i) del mismo artículo, las actividades de sensibilización sobre la situación de desigualdad entre mujeres y hombres y sobre las medidas necesarias para promover la igualdad, cuando se hayan de realizar con carácter unitario para toda la Comunidad Autónoma vasca y para toda Euskal Herria.

En este sentido, uno de los objetivos del Instituto es reforzar y potenciar la intervención de las administraciones en la promoción de la igualdad de mujeres y hombres y en la que es la manifestación más grave de la desigualdad de los sexos: la violencia contra las mujeres.

***Segundo.-*** De acuerdo con la Ley para la Igualdad de Mujeres y Hombres y Vidas Libres de Violencia Machista contra las Mujeres y con la Norma Foral 4/2018 de 20 de junio para la Igualdad de Mujeres y Hombres, corresponde a la Diputación Foral de Bizkaia el *"establecimiento de medidas de fomento a fin de dotar a los ayuntamientos y demás entidades locales de recursos materiales, económicos y personales para el desarrollo de programas y actividades dirigidas a la consecución de la igualdad de mujeres y hombres". (artículo 6.h de la Ley y artículo 5.h de la Norma Foral).*

Asimismo, de conformidad con el artículo 6.f) de la citada Ley, y con el artículo 5 f) de la citada Norma Foral le corresponde realizar, en su ámbito territorial, actividades de sensibilización sobre la situación de desigualdad entre mujeres y hombres y sobre las medidas necesarias para promover la igualdad.

***Tercero.-***Emakunde-Instituto Vasco de la Mujer, las Diputaciones Forales de Álava, Bizkaia y Gipuzkoa y Eudel-Asociación de Municipios Vascos vienen contribuyendo desde el año 2009 en el desarrollo de una Campaña Interinstitucional de Prevención de la violencia de género dirigida a la juventud, bajo el lema Beldur Barik.

***Cuarto.-***A partir de la edición correspondiente al año 2014 EMAKUNDE-Instituto Vasco de la Mujer, a solicitud de Eudel, asume la responsabilidad de gestionar la Campaña Interinstitucional Beldur Barik. Todas las partes intervinientes en la Campaña se

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 08NX-EL4V-1VLR-K967
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

hartzen duten alderdi guztiak ados daude eta alde biko hitzarmenak sinatuz kudeatzea proposatu da.

*Bosgarrena.-* Hitzarmen hau maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 20.2a) artikuluaren babesean egin da. Artikulu horretan xedatutakoaren arabera, zuzenean dirulaguntzak eman ahal izango dira, Bizkaiko Lurralde Historikoaren aurrekontu orokorretan norbaiten izenean aurreikusita daudenean.

Bere aldetik, Bizkaiko Lurralde Historikoaren 2024rako Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 29ko 10/2023 Foru Arauak, izendun zainpeketen eranskinean, Emakunde Instituto Vasco de La Mujer erakundeari dagokiona ezarri du: 0905 organikoa, 232114 programa, 42300 ekonomikoa, 2019/0015 proiektua; 35.000 euroko zenbatekoa.

Seigarrena.- Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundea eta Bizkaiko Foru Aldundia ados daude 2024an Beldur Barik erakundeen arteko kanpaina garatzen laguntzeko eta, beraz, hitzarmen hau sinatzea adostu dute. Hitzarmena honako klausulak izango ditu:

KLAUSULAK:

Lehenengoa.- Xedea.
Hitzarmen honen xedea dirulaguntza izenduna egituratzea da, gazteen artean emakumeen aurkako indarkeria prebenitzeko Beldur Barik erakundeen arteko kanpaina garatzeko.

Agiri honek, batetik, Bizkaiko Foru Aldundiak EMAKUNDE, Emakumearen Euskal Erakundearen alde eman duen dirulaguntza eraenduko duten baldintzak erregulatzen ditu. Dirulaguntza kanpainiako laguntza-teknikoaren garapenak sortutako gastuetara eta Beldur Barik kanpainaren alorrean, herritarrak sentsibilizatzeko egiten diren jarduerak edo ekintzak finantzatzera zuzenduta dago.

Bestetik, EMAKUNDE-Emakumearen Euskal Erakundearen konpromezuak eta diruzko ekarpenak jasotzen ditu, laguntza teknikoa eta kanpainaren alorrean, herritarrak sentsibilizatzeko egiten diren jarduerak edo ekintzak batera finantzatzeko.

Bigarrena.- Zenbatekoa eta aurrekontu-kreditua eta Bizkaiko Foru Aldundiaren konpromisoak

muestran de acuerdo y se propone su gestión mediante la suscripción de convenios bilaterales.

*Quinto.-* El presente convenio se enmarca en el artículo 20.2a) de la Norma Foral 5/2005 de 31 de de mayo, que establece que podrán concederse podrán concederse de forma directa, las subvenciones previstas nominativamente en los Presupuestos Generales del Territorio Histórico de Bizkaia.

Por su parte, la Norma Foral 10/2023 de 29 de diciembre, de Presupuestos Generales del Territorio Histórico de Bizkaia para el año 2024, señala en el anexo de consignaciones nominativas la correspondiente a Emakunde Instituto Vasco de la Mujer: orgánico 0905, programa 232114, económico 42300, proyecto 2019/0015, importe de 35.000 euros.

*Sexto.-*Emakunde-Instituto Vasco de la Mujer y la Diputación Foral de Bizkaia se muestran de acuerdo en contribuir al desarrollo de la Campaña Interinstitucional Beldur Barik durante el año 2024, por lo que acuerda la suscripción del presente Convenio que se regirá por las siguientes:

CLÁUSULAS

Primera.- Objeto
El objeto del presente Convenio es articular la subvención nominativa para el desarrollo de la Campaña Interinstitucional Beldur Barik de Prevención de la Violencia contra las mujeres dirigida a la juventud.

Este documento regula, por una parte, las condiciones que regirán para la subvención otorgada por la Diputación Foral de Bizkaia a favor de EMAKUNDE-Instituto Vasco de la Mujer dirigida a sufragar los costes generados para el desarrollo de la asistencia técnica y la financiación de las actividades o acciones de sensibilización a la ciudadanía que integran la campaña Beldur Barik.

Por otra parte, establece los compromisos y las aportaciones dinerarias que corresponden a EMAKUNDE-Instituto Vasco de la Mujer, con el objeto de cofinanciar la asistencia técnica y las actividades o acciones de sensibilización a la ciudadanía que integran la campaña Beldur Barik.

Segunda.- Cuantía y crédito presupuestario y Compromisos de la Diputación Foral de Bizkaia

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 08NX-EL4V-1VLR-K967
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

1.- Bizkaiko Foru Aldundiak bere gain hartzen du Beldur Barik erakundeen arteko kanpainaren kostuaren %23,26 finantzatzea, 2024. urtean gehienez ere 35.000 euro (hogeita hamabost mila euro) jarriz, Beldur Barik erakundeen arteko kanpainako laguntza teknikoa garatzeko eta kanpainaren alorrean, herritarrak sentsibilizatzeko egiten diren jarduerak edo ekintzak finantzatzeko. Adierazi den zenbateko hori honako hitzarmen honen formalizazioaren ondorioz erakunde onuradunak onartu dituen obligazioak betetzeko erabili behar da. Dirulaguntzaren ordainketa aurrekontuk o ondoko partida honetan aplikatuko da: 0905 organikoa 232114 programa, 423.00 ekonomikoa, 2019/0015 proiektua.

2.- Bizkaiko Foru Aldundiak konpromisoa hartzen du ekimena bere web orriaren eta erakundearen bestelako hedabideen bidez zabaltzeko. Horretarako, bi entitateen logotipoak agertuko dira.

3.- Bizkaiko Foru Aldundiak ibilbide-orri bat ezarri eta han programaren esparruan garatzen dituen jarduketak jasoko ditu.

Hirugarrena.- Erakunde onuraduna

1Erakunde onuradunak bete egiten ditu Bizkaiko Foru Administrazioak ematen dituen dirulaguntzen araubide orokorra erregulatzeko maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauko 12. artikuluan xedatutako betekizun guztiak.

Laugarrena.- Emakunde, Emakumearen Euskal Erakundearen konpromisoak.

1.- Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeak konpromisoa hartzen du gaiari buruz dauzkan ezagutza eta eskarmentua jartzeko, baita honako konpromisoak ere:

a) Bizkaiko Foru Aldundiarekin lan plangintza bat aurkeztu eta adostea.
b) Ekintzen gauzapena garatzea eta haren jarraipena eta ebaluazioa egitea.
c) Aurreko idatz-zatian aipatutako konpromisoak betetzeko behar diren adina baliabide material eta giza baliabide jartzea.
d) Kontratazio-organo eginkizunak egikaritzea.
e) Hitzarmen honetan aipatzen diren ekarpenak kudeatzea.
f) Txostena egitea, hitzarmen honetan aipatutako konpromisoen arabera egindako lanari buruz.

1.- La Diputación Foral de Bizkaia, asume la obligación de financiar el 23,26% del costo de la Campaña Interinstitucional Beldur Barik, mediante la aportación en el año 2024, de la cantidad máxima total de 35.000 euros (trenta y cinco mil euros), para el desarrollo de la asistencia técnica y la financiación de las actividades o acciones de sensibilización a la ciudadanía que integran la campaña Beldur Barik. Dicho importe deberá destinarse al cumplimiento de las obligaciones asumidas por parte de la entidad beneficiaria, como consecuencia de la formalización del presente convenio. El pago de la subvención será aplicado a la siguiente partida presupuestaria: orgánico 0905, Programa 232114, , económico 423.00, proyecto 2019/0015.

2.- La Diputación Foral de Bizkaia, se compromete a divulgar esta iniciativa a través de su página web y otros medios de difusión de la institución. A tal fin se harán constar los logotipos de las dos entidades.

3.- La Diputación Foral de Bizkaia establecerá una hoja de ruta en la que recoja las actuaciones que desarrollará en el marco del programa.

Tercera.- Entidad beneficiaria

La entidad beneficiaria reúne los requisitos exigidos establecidos en el artículo 12 de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral.

Cuarta.- Compromisos de Emakunde-Instituto Vasco de la Mujer

1.- EMAKUNDE- Instituto Vasco de la Mujer se compromete a aportar su conocimiento y experiencia en la materia y a:

a) Presentar y acordar con la Diputación Foral de Bizkaia un plan de trabajo.
b) Desarrollar y realizar el seguimiento y evaluación de la ejecución de las acciones.
c) Habilitar los medios materiales y personales necesarios para el cumplimiento efectivo de los compromisos mencionados en el apartado anterior.
d) Ejercer las funciones de órgano de contratación.
e) Gestionar las aportaciones referidas en el presente convenio.
f) Elaborar una memoria relativa a la labor desarrollada con relación a los compromisos referidos en este convenio

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 08NX-EL4V-1VLR-K967
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

g) Bi hizkuntza ofizialak erabili beharko dira herritarrei jardueraren berri emateko egiten diren liburuxketan, karteletan edo bestelakoetan (63/2019 FORU DEKRETUA, maiatzaren 28koa)

g) En todos los folletos, los carteles o cualquier otro soporte utilizado para dar publicidad de la actividad subvencionada a la ciudadanía deberán utilizarse las dos lenguas oficiales (DECRETO FORAL 63/2019, de 28 de mayo)

2.- Era berean, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeak bere gain hartzen du Beldur Barik erakundeen arteko kanpainaren laguntza teknikoaren eta Beldur Barik kanpaina osatzen duten gainerako jardueren kostuen, gutxienez, %50 finantzatzeko betebeharra, partida hauetatik eratorritako gehieneko kopuruen bitartez:
- 2024.2054701000 1.32230.24499 2019/001463: 97.000,00 €
- 2024 2054701000 1.32230.40200 2109/001465: 205.000,00 €

2.- Asimismo, Emakunde-Instituto Vasco de la Mujer asume la obligación de financiar, al menos, el 50% del costo de la asistencia técnica y del resto de actividades que integran la campaña Beldur Barik, mediante la aportación de la cantidad máxima derivada de las partidas siguientes:

- 2024.2054701000 1.32230.24499 2019/001463: 97.000,00 €
- 2024 2054701000 1.32230.40200 2109/001465: 205.000,00 €

Zenbateko horrek, hiru foru aldundiek jartzea aurreikusita dagoen zatiarekin batera (gehienez Bizkaiak 35.000€, Arabak 12.000€ eta Gipuzkoak 23.500€), mugatzen du laguntza teknikoaren kontratazio espedientearen aurrekontua eta Beldur Barik kanpainaren baitan, herritarrak sentsibilizatzeko egiten diren jarduerak edo ekintzen ordainketa.

Esta cantidad, junto con la que está prevista que aporten las tres Diputaciones Forales (máximos de Bizkaia 35.000€, Araba 12.000€ y Guipúzcoa 23.500€), es la que determina el presupuesto máximo del expediente de contratación de la asistencia técnica y de la financiación de las actividades o acciones de sensibilización a la ciudadanía que integran la campaña Beldur Barik.

Hitzarmen honetan araupetutako dirulaguntzen zenbatekoa ezin da izan inolaz ere, bakarrik nahiz beste batzuekin batuta, dirulaguntzaren xede den jardueraren kostua baino gehiago.

Las subvenciones reguladas en este convenio en ningún caso podrán ser de tal cuantía que de forma aislada o en concurrencia con otras subvenciones o aportaciones superen el coste de la actividad subvencionada.

3.- Azkenik, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeak konpromisoa hartzen du ekimen hori bere web orriaren eta erakundearen beste hedabideen bidez zabaltzeko, Bizkaiko Foru Aldundiarekin batera sustatu duela agertuz. Horretarako, bi entitateen logotipoak agertuko dira.

3.- Finalmente, Emakunde-Instituto Vasco de la Mujer se compromete a divulgar esta iniciativa a través de su página web y otros medios de difusión de la institución, haciendo constar que ha sido promovida junto con la Diputación Foral de Bizkaia. A tal fin se harán constar los logotipos de las dos entidades.

Bosgarrena.- Aplikatu beharreko araudi juridikoa

Honako hauen bidez arautuko da dirulaguntzaren ematea:
